

# Jalgi hadi plazara!

Lan-unitate honetan, hiriko garraio-moten inguruko informazioa jasoko duzu. Hona hemen ideia batzuk gaian sakontzeko, euskara euskaltegitik kanpo erabiltzeko eta, jakina, zure ikasprozesuan aurrera egiteko.

## JALGI HADI PLAZARA!

### Zuen ingurua aprobetxatuta

- ✓ Imajinatu kazetaria zarela eta eskatu dizutela Gasteizko mugikortasunaren inguruko erreportajea egiteko. Ezetz bat grabatu telefonoa erabilita! Lehenik presta ezazu esan beharrekoaren eskema txukuna, zure gidoia izango dena. Ondoren, telefonoa hartu eta ekin grabatzeari. Jakina, behin amaituta, erakutsi egindako "artelana" ikaskideei!

### Internet aprobetxatuta

- ✓ Patinete eta bizikleta elektrikoen inguruan jardungo dugu, bada, lan-unitatean zehar. Hona hemen tramankulu horien inguruko hiru bideo labur. Ikaskide birekin adostuta, bana ikusi, informazio garrantzitsuena eskema batean apuntatu eta jasotakoa elkarri kontatu.
  - Bizikleta eta patinete elektronikoak ezingo dira espaloian ibili Donostian. [Hemen](#).
  - Martxan da bizikleta elektrikoaren zerbitzua Donostian. [Hemen](#).
  - Polemika Bilbon bizikleta elektrikoarekin. [Hemen](#).
- ✓ Patinete elektrikoak modan daude, bada! Hona hemen haien inguruko berri luzeago bi. Aukeratu bat eta bildu eskema batera xehetasunik garrantzitsuenak. Behin lana eginda, kontatu iezaiezu ikaskideei jasotakoa.
  - Gure bidegorriak ez daude prest ibilgailu masa handia jasateko.. [Hemen](#).
  - Patinete elektrikoak; bat-batean, ezezagun bat. [Hemen](#).
- ✓ Deskargatu *Tranvit* izeneko app-a. Haren bitartez, denbora errealean izango duzu tranbiak eta autobusek daramaten ordutegiaren berri. Gainera, zure ohiko ibilbideak gordetzeko aukera emateaz gain, esango dizu zein diren geltokirik hurbilenak. Praktikoa benetan!